

Hitzaurrea



errenen pertsonaiek sekulako bidaiak egin zituzten idazleak idatzitako liburu ezberdinetan. 2010.eko irailean aldiz, mundu osoko hainbat idazlek, ilustratzailek, bibliotekarik... Galiziara egin zuten bidaiak, bertan 32. IBBY Nazioarteko Biltzarrean parte hartzeko. *Behinola* honetan han bizitakoaren espiritua ekarri nahi izan dugu, ohi denez, elkarrizketekin, artikuluekin...

Hitz eta pitz atalera Galiziako idazle ospetsuenetako bat ekarri dugu: **MANUEL RIVAS**. Galizian –Santiago– irailaren 8tik 12ra burutu zen IBBYren 32. Nazioarteko Biltzarrean Asun Agirianok –Galtzagorriko lehendakariak– Rivasen hitzaldia aurkeztu zuela aprobetxatuz, berarekin bildu ginen haur-literaturaz eta beste gai askoren gainean solasteko.

Hitzontzi ataleko leihoa **LEIRE BILBAO** idazle ondarroarrak ireki du parez pare eta Galiziako biltzarreko leloa aitzakiatzat hartuta –*Gutxiengoan indarra*–, ipuin poetiko bat sortu zuen: *Zergatik erortzen diren lorontziak*.

Hizpiden hiru emakume entzutetsuren artikulua irakurtzeko aukera izango dugu. Hiru artikulua Galiziako biltzarrean entzun ziren, egindako mahai inguru edo hitzaldietan. Horrela, **TERESA COLOMER**ek *Haur-literatura: Gutxiengo bat literaturaren barruan* lana aurkeztu zuen. **MARIASUN LANDAK** *Neskatilak, gehiengo edo gutxiengo* plazaratu zuen Santiagon. Bukatzeko, **TERESA DURANEK** egindakoa bildu dugu: *Irudiztatzea eta gutxiengoak*. Zein baino zein interesgarriagoa, zalantzarik gabe.

Hitzordu sailean **JONE ARROITAJAUREGI** Galtzagorriko langileak Bularretik Mintzora egitasmo berrituaren nondik norakoak kontatuko dizkigu. Horrela, proiektu honen baitan bigarren liburu-CD bat sortu da: *Sasi guztien gainetik* eta web orri berria eratu da: <http://www.bularretikmintzora.org>. Artikuluak gurasoei egindako zenbait galdetegiren emaitzak argitaratu emango ditu.

Hitz besten ohikoak diren liburuen erreferentziak eskainiko dira erreseinen bidez. **IMANOL MERCERORI** gure ongietorri beroa eman nahi diogu, zenbaki honetan lehenbiziko aldiz plazaratuko baititu bere erreseinak. Modu berean, gure eskerrak **XABIER OLASORI**, **XABIER ETXANIZI** eta **ASUN AGIRIANORI** beraien ekarpenengatik.

Hitzatzean **IZASKUN JAUREGI** Galtzagorri Elkarteak idazkari teknikoak Galizian bizitako lau egun *zoro* horien kronika egin du.

Bukatze aldera, gure esker zintzoenak **ANTTON DUESORI**, bere ilustrazioekin *Behinolari* kolore pixka bat emategatik.

Azkenik, ezin dugu aipatu gabe utzi **JOXE ARRATIBELEK** eta **JUAN CARLOS EGUILLORREK** berriki utzi gaituztela.

JOXE ARRATIBEL euskal ipuin-biltzaile eta idazlea 2011ko urtarrileko azken egunetan zendu zen. Txikitako ipuin eta kontu zahar asko zekizkien eta entzun zituen bezalaxe paperean bildu eta ahozko literaturaren gordailu paregabea osatu zuen. Lan horren fruitu da *Kontu zaarrak* bilduma (La Gran Enciclopedia Vasca, 1980). Horren ondoren beste liburu asko etorri ziren.

JUAN CARLOS EGUILLORREK kazetaritza ikastetak alde batera utzi zituen umore grafikoa lantzeko, horrela ezaguna izan zen bere *Mari Aguirre*, *El Correo* eta *Egin* egunkarietan plazaratu zuena. *Euskadi Sioux* aldizkarian parte hartu zuen, zazpi zenbaki argitaratu baziren ere, eragin handiko aldizkaria izan zen. Beste aldizkari eta komunikabide askorekin lan egin zuen, ezin hemen guztiak jaso. Baina, ez dugu aipatzeke utzi nahi 18. *Behinola* maisuki ilustratu zuela. Bere lanak sari eta errekonozimendu ezberdinak jaso zituen. Azkenik, nabarmendu nahi genuke bere bitartez Bernardo Atxagak haur-literaturara salto egin zuela.